

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko martxoaren 5a


Egunkaria

Gehigarri honetan

Bera • Emakumeen asteburua astelehenari begira.

Maite Lopez • «Hurbilen daukagun informazioa berreskuratzeko apustua egin dugu».

Sokaren eraman handia



• MIKEL SAIZ

Igandean amaitu zen goma gaineo Munduko V. Sokatira Txapelketa, Irlandako Carlow hirian. Euskal ordezkariak bederatzi domina eskuratu zituzten, eta horietatik zortzi Nafarroako hiru taldek golkoratu zituzten, dela klubeka, dela nazioka. Aresoko taldeak hiru domina ekarri ditu, beste hainbeste Sakanako emakumezkoen taldeak, eta bi Lesakako Beti Gaztek. Sarien kolorea bera izan ez den arren, sokari tiraka eraman handia dutela frogatu dute hirurek.

Larraun

Gauza asko ikasteko

Baserri turismoari eta musikari buruzko ikastaro bana martxan

Inguruko baserriarrei baserri turismoaren aldeko apustua egiteko orduan gauzak erraztea, baina, batik bat, apustu hori egin dutenen lana nola hobetu daitekeen azaltzea da ikastaroetako baten helburua.

Jakina da Nafarroako mendialdean gero eta baserriar gehiagok zabaldu dizkietela bere etxeko atea kanpotik etorritako turistei. Beste aukerarik ez, eta hori omen da inguru horren etorkizuna. Hori uste dute behintzat turismoaren esparruan diharduten hainbat erakundek. Horietako batzuk dira Garalur, Plazaola Partzuergo Turistikoa, ITG eta Nafarroako Gobernuako Turismo Saila; hain zuzen, ikastaroa antolatu dutenak. Erakunde horiek ez omen dute bete nahi ikasle kaskarrekin haserretzen den irakaslearen papera. Urteetako esperientzia falta denez, normala omen da baserri turismoan akatsak topatzea. Horregatik, akats horiek zuzentzeko, hainbat ordutako ikastaroa emango



Eskualdearen etorkizunean garrantzia handia duen baserri turismoa sendotu nahi dute zenbait ikastaroekin.
● LUIS AZANZA

dute Irurtzungo Kultur Etxean.

Klase teorikoez gain, baserri turismoko etxe batzuetara joan ere egingo dira, bertatik bertara ikusi ahal izateko klaseetan landutako gaiak. Turismo mota honekin lotura

duten hainbat esparru landuko dira, astean bitan: alojamendu hauen fiskalitatea, fakturazioa, apainketa, marketin hastapenak, bezeroei egin beharreko harrera, erreserben kudeaketa eta inguruko naturaguneak duen erakar-

garritasunari etekinik gehien nola atera, besteak beste.

Inguruan bastante baserri etxe omen daude turismorako, baina, hala ere, horien zerbitzua hobetu behar omen da.

Ikastaroa datorren astean hasiko da, eta apirilaren 20ra arte iraungo du. Parte hartu nahi duenak, beraz, izena lehenbailehen eman beharko du Plazaolako Partzuergoan, Garalurren edo ITGn.

Musika ikastaroa txikientzako

Aisiako orduak betetzeaz gain, musikaren munduan lehen urratsak eginaraztea da ikastaroaren helburua. Aralar Udala Musika Eskolak iaz jarri zuen martxan ekimena, eta orduko emaitza onak ikusirik, aurten berriro egitea erabaki dute. Hortaz, lau, bost eta sei urteko umeek musika ikastaro bat egiteko aukera izanen dute. Musika eskolak egindako gonbita onartu dutenak hiru multzotan banatu dira: bat Araitz-Betelun eta beste biak Lekunberri.

Klaseak asteazkenetan ematen dira, arratsalde, umeek eskolan klaserik ez dutela aprobetxatuz. Ez dira ohiko solfeo klaseak, jolas moduan aurkeztu zaie musika haurrei. Jolas horien bidez lantzen dira psikomotritzitatea, entzumena, adierazkortasuna...

→ Urko Aristi

Lekunberri

Ekitaldi ugari Emakumearen Eguna dela eta

GAUR ZABALDUKO DA Lekunberriko Mitxasenean Kultur Etxean erakusketa berri bat: Gure emakumeak, gure ohiturak: argazkiak eta oroitzapenak. Hori da erakusketaren izenburua, eta emakumea du ardatz. Astelehenean Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen denaren aitzakia hartuta, aste osoan izango da zabalik erakusketa. Ehun argazki zaharretik gora bildu dituzte Mitxasenekoek. Gaiaren arabera sailkatu, eta bakoitzaren ondoan testu bat jarri dute. Esaterako, bada atal bat eskolari eskainia.


Emakumearen inguruko ospakizunik potoloena izanen da erakusketa, baina ez bakarrik. Esaterako, bi hitzaldi antolatu dira. Astelehenean 15:00etan Mitxasenean droga-menpekotasuna nola ekidin izanen da gaia. Hilaren 13an, berriz, nerabe baten bizitza nolakoa den argitzen saiatuko dira: hauen pentsakera, kezka... Beraz, seme-alaben eta gurasoen arteko harremanak errazteko proposak izanen dira solasaldiak.

Azkenik, afaltzeko ere bilduko dira emakumeak astelehenean, Lekunberriko emakumeak, aspaldiko urteetan egin moduan, eta, bide batez, atzo hasitako emakumeentzako mus txapelketako saridunak zein diren jakingo da.

→ U. A.

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Laboratorioetatik plazara jauzi luzea egin du jada misterioz beteriko hitz berri honek. Ia konturatu gabe bestalde, bere tokia egin du gure eguneroko hiztegian, eta zehazki zer esan nahi duen jakin gabe badarabilkigu barra-barra, gehienetan, txantxa moduko gauza balitz bezala edo.

Aldeko eta kontrako asko eginak ditu dagoeneko. Aldekoen artean, noski, elikadura sektoreko zenbait multinazional eta laboratoriorik topa ditzakegu, elikagai transgenikoak gizakumeari zein naturari onura egingo diola sutsu defendatzen dituztenak; kontrakoan artean, berriz, badira teknika berri hauek aurrekoak bezain sutsu arbuiazen dituztenak, muga gabeko erabilpenaz fido ez direnak, hots, elikagai transgenikoak naturaren eta gure kalterako izanen direla aurreikusiz.

Irizpideak irizpide, badago esaterik bideogenetikak sortu berri duen iraultza transgenikoak hasi besterik ez

Transgenikoa

duela egin gure artean: soia edo arto transgenikoak iritsiak dira jada gure soroetara, eta pentsatzekoa da horretarako ez da oso azkarra izan behar bi elikagai horietaz aparte beste batzuk ere etorriko direla laster askoan.

Hitzak bere baitan daramatzan bi osakideak errepertatzen baditugu bestalde, trans eta genikoa, alegia; konturatzen gara berehala -ez duzu ukatuko, ezta?- hitzok badutela zerbait ezkuturik, edozeini kezkatzeko motiborik ematen diona: pixka bat beldurtzeaz gain, halako izua ere sortarazten duelako: Zertan da benetan iraultza transgenikoa? Zein errealitatearen aurrean paratuko gaitu mundu transgenikoak geroke batean? Zergatik ez da eztabaida publikorik izan foro politiko, zientifiko eta gizartearen antolakuntzetan?

Kezkatzeko motiborik ez da falta, alabaina. Demagun -para daitezkeen hamaika kasuren artean-, multinazional batek aurkitzen duela -horretan dihardute

egun buru-belarri- behi transgeniko bat tradizionalak baino esne edo okel gehiago ematen duena. Beno, aurkituntzaren patentea berea denez, beraren esku geldituko zen haren merkaturaketa. Legediaren arabera, Europako nola Estatu Batuetako parlamentuetan arintxo onartua izan dena, multinazional horri bakarrik legokioke merkaturak salgai jartzea. Behi mota horri esker, noski, multinazionalak produktu merkeagoak eskainiko zituen saltokietan, eta epe ertainean edo ez oso luzean, behi tradizionalen desagerketa ekarriko zuen, ezinbesteko ordezkatze prozesu baten ondorioz.

Zientzia fikziozko kontu bat dela dirudi, ez dut ukatzen; baina, ez dezagun ahanzt, egungo errealitate asko fikziozkoetat ere joak izan zirela iragan batean. Azkenik, beste galdera bat: zer gertatuko da txuleta transgenikoaren jatunarekin, transgeniko ere bihurtuko al da jatearekin batera?

Etxarri-
Aranatz

Gaztetxearen
urtemuga
ospatuko dute
bihar

ETXARRIKO GAZTETXEAREN okupazioaren hirugarren urtemuga ospatuko da bihar. Etxarriko Gazte Asanbladak, beste herri-
tar batzuen ekarpenarekin batera, erabilera publikorako gune autogestionatu bihurtu zuen duela hiru urte hutsik, ahaztuta, ia erabat galduta zegoela arratoi haztegia baino ez zen eraikin bat.

Denbora honetan, hainbat arazo izan ditu Gazte Asanbladak: erakina zaharberritzeko diru falta, gaztetxea erretzeko saioa, mehatxu judizialak, teilatuaren erortzea, Elizarekin izaniko arazak... Dena dela, egoera bide onetik doa, eta aurrera jarraitzeko prest dira. Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Goizeko 10:30etan, intsumisioari buruzko murala konponduko dute gazteek. Bukatu eta gero, auzatea prest egonen da herriko plazan bertara joan nahi duen guztientzat. Bostehun pezeta baino ez dira beharko 14:30etan herriko plazan izan den bazkaria dasatzeko. Eta 20:00etan euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko manifestazioa egingen da.

→ Amaia Mundiñano

Bera •

Martxoaren 8a besta giroan

Uxua taldeak makina bat ekitaldi antolatu du

**Urtero legez,
martxoaren 8rako,
Emakumeen
Nazioarteko
Egunaren inguruan,
Berako Uxua
emakume taldeak
makina bat ekitaldi
antolatu du besta
giroan**

BIHAR HASI ETA ASTELEHENA BITARTE, Berako emakumeek egingako hainbertze lan ikusi ahaliko dira Berako bertako kultur etxean, arratsaldeetan idekia egonen den erakusketan. Bertan gauza anitz izanen da ikusgai, guztiak emakumeek eginak, bai Uxua emakume taldeak antolatzen dituen ikastaroen barranean egindakoak, bai bertze-
la ere, nahi duen emakume orok egindako artisautza edo eskulanak. Altxari margotuak, koadroak, josi-galak eta bertzelako eskulanak bildu dituzte antolatzailleek. Kultur etxeko erakusketak ardatz dela, emakumeen topagunea egin nahi dute. Hala, igande arratsaldean, kultur etxean bertan, *Lección de orgasmo* antzezlanak ikusi ahal izanen da, arratsaldeko 19:30etan.



Martxoaren 8a dela eta, errebindikazioak azaldu baino eguna besta giroa ospatzea nahiago dute Berako emakumeek.

• JACOBA MANTEROLA

Baina emakumeen eguna propio astelehenean ospatuko dute. Erakusketa bildu ostean, Berako hainbat emakume elkartuko da afaltzera Zalaian jatetxean. Aitzineko urteetako parte hartzea kontuan hartuta, aurten ere dozenaka emakume bilduko dira emakumeen besta handira, trikitilariak lagun dituztela.

Aitzineko urteetan, jardunaldi horien barranean hitzaldiak ere antolatu izan dituzte. Aurten, baina, solasaldi horiek egun hauetako egitarauan sartu ordez, urteko bertze sasoi batzuetan egitea deliberatu dute.

Antolatzailleek ez dute helburutzat bertze zenbait tokitan Martxoaren 8ak hartu ohi duen errebindikazio kutsua agertu. Alderantziz, emakumeak elkartzea, euren lanak erakustea eta, batez ere, giro onean ongi pasatzea da xede nagusia. Urte osora hedatzen dute lan hori Uxua emakume taldekoek, eta, hala, idazketa tailerra, eskulan eta altxarien zaharberritze ikastaroak eta aholkularitza eta hitzaldiak eskaintzen dizkiete Berako emakumei.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Urdazubi biziberritzen

Urdazubiko errota eta monasterioa gaitzat hartu ditu **Ttipi-ttaparen** azken zenbakiak, bi eraikinok berrituko dituztela baliatuz. «Urdazubiko errota artoa eta garia ehotu du guttienez hiru mendetan. Horretaz gain, turbina tiki baten bidez hainbat urtez argindarra ere sortu du Urdazubi, Leorlas, Telleria eta Hiribere auzoetarako. Urdazubira, Baiona edo bertze herri haundiagoetara baino lehenago ailegatu zen argi elektrika. Errota zein urtetan eraiki zen zehazterik ez dago. 1713. urtean Pedro Iribarrenek berreraiki zuen, baina Nafarroako Artxibategian gari-siloak egiteko lizentziak daude, XIII eta XIV. mendeetan idatziak».

«Urte aunitan partikularren esku egon zen, baina pittan-pittan, arto-irinarensalmentaz bizitzea gero eta zailagoa bilakatu zen. 1950ean, Andres Urrutia Iparragirre jabeak Urdazubiko Udalari saldu zion errota, 218.000 pezetaren truke. Urdazubira ere ailegatu ziren aurrerapenak: argi elektrika sartu zen eta errota turbinak gelditu zen. Gainera, artoa gutitua zenez, 1966an errota gelditu egin zen».

Errota berriro martxan jartzeko asmoa du Urdazubiko Udalak: «Moldatze lanak egiteko sei milioi pezeta pasatutako aurrekontua bertzerik ez dago, baina kontuan hartu behar da duela zortzi urte

kanpoaldea eta teilatua moldatu zela. Hiru errotarriak ere ongi daude, baina errodamientoak garbitu eta kolpeztatu behar dira. Sei milioi horietatik %70 Cederna-Garalur erakundeak ordainduko du».

Errotaz gain, turistik monasterioa bisitatzeko aukera ere izanen dute: «Joan den urte akabailan Urdazubiko Udalak hitzarmena sinatu zuen Iruñeko Artzapezgoarekin. Idatzilaren arabera, udala izanen da monasterioa klaustroaren arduraduna hurrengo hogeitau urteetan. Beraz, hainbat urtez jendearentzat hertsirik egon den monasterioa laister zabalduko da».



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Karlos Iturgaitz inventarium

Azkenean zure berririk ez genuela-eta, zure etxera telefonoz deitzea erabaki genuen, Karlos, eta etxean ez zinela jakin genuenean zer edo zer hautsi zitzaigukean bihotzean, kra! Erantzungailu automatikoa entzun eta «Karlos, zure etxera goaz» mezua utzi genuen, eta telefonoa pu-pu-pu-puka hasi zenean, elkarri begiratu eta, supituki, zer edo zer hautsi zitzaigukean bihotzean, kra! Zure etxera ailegatu, etxean sartu, eta bakarrik geundela ohartu orduko, ikusiz zer-nolako aukera genuen, kuxkuxeatzeri ekin genion, alaiki, gela eta kajoi guztiak arakutzen, inongo antolaketa-rik gabe, aitortu dezagun. Aurretik erantzungailua piztu eta zeuden hiru mezuak entzun genituen: «Soy Josemaría, llámame», «Soy Jaime, llámame» eta «Karlos, zure etxera goaz», azken hau gurea, noski. Logelaren mesanotxean Juaristiren lau liburu zeuden. Eta liburu batean gorritz azpimarraturik: «izugarri naziak ziren naziak, baina hemengoak are gehiago» esaldia. Kajoian kafetegi baten tiketa eta atzeko partean «teléfono del profesor de vasco» eta telefono zenbaki bat. Ohe azpian hautsaz inguraturiko lau kaxa. Eta kutxetan sartuta: «hauteskunde bakoitzean autodeterminatzen gaituk» zioten mila plaka faltsu, txikiak hori bai. Eta «gehiengo eta gutxiengoaren joko demokratikoa errespetatu dezatela»-z betetako beste lau plaka-kaxa, hauek handixeagoak, serie zenbakiak ezabatuta, badaezpada ere, eta papertxo hori bat: «Jada ez dute balio. Alderdia-
ren biltegira itzuli, beste nonbaiten erabil ditzaten». Sukaldean bakailaoa prestatzeko euskaraz idatzitako hiru erre-
zeta, eta hiru errezetetan: «?» zeinua gorritz «bakailaoa» hitzen ondoan. Lapikoa seinatu eta Fermintxok «amurrai-na bota du!» esan zuenean zer edo zer hautsi zitzaigukean bihotzean, kra! Zeozer hautsi zitzaigukean bihotzean, kra!, auzokidea oihuka «Ertzaintza deitu dut, kabroiak!» hasi zenean eta ihes egiterakoan, gutako bati, eskaileretan estropezu egin zuenean, zer edo zer hautsi zitzaion txorkatilean. Kra!

Nafarren sokaren eraman handia

Zortzi domina eraman dituzte nafarrek Irlandan joan den asteen jokatu den goma gaineko Munduko V. Sokatira Txapelketan

Joan den igandean amaitu zen goma gaineko Munduko V. Sokatira Txapelketa, Irlandako Carlow hirian. Euskal ordezkariek bederatzia domina eskuratu zituzten, eta horietatik zortzi nafarroako hiru taldek golkoratu zituzten, dela klubeka, dela nazioka. Aresoko taldeak hiru domina ekarri ditu, beste hainbeste Sakanako Beti Gaztek. Sarien kolorea berdina izan ez den arren, sokari tiraka eraman handia dutela frogatu dute hirurek.

Areso: azken urteetako lanaren uztza
Orain dela urte batzuk arte puntako taldeak Euskal Herrian bizkaitarrak eta gipuzkoarrak izan dira, baina azken urteetan nafarrek ere indarrean daudela erakutsi dute eta horren lekuko argiena Areso da. Jexus Etxezarrera nuarbearrak entrenatzen duen taldea. Hiru domina ekarri ditu Nafarroa: klubeka hirugarrena 560 kiloetan, eta Euskal Herria ordezkatzuz (nahiz eta han Espainia bezala jartzen dituzten) zilarrezkoa 560 kiloetan eta urrezkoa 600 kiloetan. Taldea Areso, Leitza, Azpiroz eta Goizueta hamahiru gaztek osatzen dute: Miguel Angel Sukuntza, Jose Otermin, Boni Etxetxikia, Txomin Artola, Jesus Artola, Patxi Baraibar, Mikel Baraibar, Mikel Arraia, Joseba Olazabal, Karlos Zabaleta, Xabier Arraras, Jose Miel Artola eta Juan Mari Izeta. Taldea orain dela sei urte hasi zen lanean eta urte gutxitan oso emaitza onak izan ditu. Etxezarrera entrenatzaileak dienez, espero zuten Irlandan lortutakoa. «Sokatirako mundua urtetan landu beharrekoa da. Seigarren urtea genuen eta maila ona zegoen. Aurten Euskal Herriko txapelketan lau txapel irabazi genituen eta bagenuen itxaropena aurrean ibiltzeko», dio pozik. Tiralariek «sakrifizio handia eta familiarekin egoteko denbora gutxi» baidute ere, emaitzek gutzia asetzen dutela diote. «Urte asko daramatzat honetan eta lotura bat sortzen duzu lagunekin. Odolan daramazun zerbait da, lagunartea sortzen da eta horrek eusten dio taldeari», gaineratu du. Talde lana da garrantzitsua sokatiran. «Tiratzen duten zortziek elkar ongi ezagutzea, eta indarra eta

Jokin Razkin:

«Izan da lorpen bat ikaragarria lehenengo urtea izateko. 520rako oso pisu txikia daukagunez osatu genuen beste talde bat 520koa nazio bezala joateko beste euskal taldeeko kide batzuekin. Ordu bat lehenago antolatutako taldeak jo eta zilarrezko domina lortu zuen».

teknika ongi erabiltzea erabakigarriak izan dira», azpimarratu du Etxezarretak. Baina lan pertsonala ez ezik, finantzaketa arazoak ere izaten dituzte taldeok, eta ahal den bezala ibiltzen dira. «Festa eta erakustaldietan ateratakoarekin eta Euskal Herriko Federazioak pisuagatik ematen duen zenbatekoarekin moldatu behar izaten dugu, beti eskaleak bezala», kexatzen da. Diruarena ez da taldeok duten arazo bakarra, klubeka aritzen direnean arazorik izaten ez duten bezala, nazioka ari direnean ezin dute Euskal Herriaren izenean aritu. «Animaz eta bihotzez euskaldun joaten gara baina ez digute uzten horrela jokatzeko. Han Espainia deitzen digute, nahiz eta gero ereserik ez diguten jotzen; bandera ere TWIFkoa (Nazioarteko Sokatira Federazioa) altxatzen dute podiumean», bukatu du.

Beti Gazte: esperientziaren pisu

Orain dela zazpi-zortzi urte hasi ziren sokatiran, Nafarroa aldean bakarrik. Gora joan dira, ordea, esperientziarekin. Aurreko mundialean ere parte hartu zuten. Taldea hamalau gaztek osatzen dute: Karmelo eta Jose Angel Mitxelena, Oskar Telletxea, Iñaki Igola, Igor Telletxea, Paskual Taberna, Alex Sarobe, Agustin Zubietza, Imanol eta Jose Telletxea, Antonio Mugika, Berniardo Iantzi, Mikel Gastesi eta Josu Irigoien. Bortzirietako taldea klub moduan joan da hiru kategoriatan eta bi domina lortu ditu: 560 kiloetan urrea, eta 600 kiloetan zilarra. «560 kiloetako da hobekien ibiltzen garen pisua. Hurrengo kategorian ez dugu pisurik eta horretan beti ongi prestatzen gara. Ongi tiratu genuen eta gauzak ongi ateratu ziren eta irabazi egin genuen», dio Karmelo Mitxelena taldekideak. Arazo gehien gomak eman omen die. «Denboraldia mundialera ongi iristeko prestatu genuen eta hor daude emaitzak. Ortzegunean urrezkoa irabazi genuenean negarrez ere aritu ginen», bukatu du. Denboraldia bukatu delarik, atsedendia hartuko dute. Dena den, udan erakustaldiak egin jarraituko dute. Iparraldean batez ere, dirua lortzeko eta etxe-



Sakanako taldeak Irlandan jokatu zituzten garaia. (Goian) Beti Gazte, Lesakako taldeak, eta (behean) Euskal Herriko txapelketako sailkapeneko irabazleak. ● MIKEL IZETA

Aurten Josu Irigoien hartu dute prestaketa fisikoa egiteko eta asko nabaritu omen dute. «Urtero-urtero guk geuk egin genuen prestakuntza, baina urtero zerbaitetan huts egin genuen. Ez genekien puntu-puntu finalera ailegatzeko eta aurten Irigoienekin hobekiago egin dugu», azpimarratu du pozik. Aurreko denboraldietan entrenatzaileak gabe ibiliak dira eta ardura hori besteen gain uzteak emaitza onak eman dizkie. «Denboraldia mundialera ongi iristeko prestatu genuen eta hor daude emaitzak. Ortzegunean urrezkoa irabazi genuenean negarrez ere aritu ginen», bukatu du. Denboraldia bukatu delarik, atsedendia hartuko dute. Dena den, udan erakustaldiak egin jarraituko dute. Iparraldean batez ere, dirua lortzeko eta etxe-

ko saleketatik hainbeste jarri behar ez izateko.

Sakanako emakumeen estrenaldi bikaina
Jokin Razkin arbitzuak zuzentzen duen Sakanako sokatiralariek emakumeen taldea eskualdeko eta Iruñeko Txantrea auzoko gazteek osatua da.

Elkarrekin hiru urte daramate eta tiraldiak egiteko beharrezkoak diren zortzi tiralarik osatzen dute taldea: Beatriz Razkin, Susana Age-

da lorpen bat ikaragarria lehenengo urtea izateko. 520rako oso pisu txikia daukagunez osatu genuen beste talde bat 520koa nazio bezala joateko beste euskal taldeko kide batzuekin. Ordu bat lehenago antolatutako taldeak jo eta zilarrezko domina lortu zuen», dio pozez txarritzen. Momentuan osatutako taldea izan zen arren, emaitza ona izan zuten. «Holanda eta Japonia izan ditugu arerio nagusiak eta bada-kigu bi aste, hilabete bat aurretik kontzentratzen dituztela, elkarrekin ezagutzen eta sokan

Oso hedatua dago sokatira

Kontrakoa dirudien arren, sokatira oso hedatua dago nazioartean. Kirol horren jatorriari buruz, berriz, teoria bat baino gehiago daude, Luis Mari Gurrutxaga, Nuarbe taldeko idazkariaren iritziz. Egiptoan duela 4.000 urte egin omen zen piramideak eraikitzeak harriak garraiatzeko. Lawyer etnografoak zioen, berriz, Asiako uharte batzuetan, hala nola Borneon, sokatira sineskeretan oinarrituta egin zela. «Eguraldiaren etorkizuna nolakoa izango zen jakiteko. Talde batek ordekatzen zuen hezea eta besteak lehorra; zeinek nori irabazten zion, beste urtaro bat izanen zen hezea edo lehorra», azaldu du Gurrutxagak. Eskimalak ere aritzen omen dira izotz gainean. Beraz, ez da gurean bakarrik egin den zerbait.

Dena dela, Euskal Herrian sokatirak marinel kutsua du. Marinelek sokarekin lurreratzen zituzten ontziak eta euren artean hasitako demen ondorio omen da egun ezagutzen dena.

1920an sokatirak lekua izan zuen lehenengoz Joko Olimpikoetan, baina Euskal Herrian 1978an egin zen lehenengo txapelketa ofiziala. Agurainen. Dena dela, txapelketak egin ziren lehenago ere baina oso bakanak ziren. «Ezan daiteke 1978an oinarritu zela Euskadiko txapelketak egiteko modua eta Euskal Herriko Sokatira Federazioaren babespean», azaldu du nuarbetarrak. Euskadiko Federazioa 1977an onartu zuen TWIF (Tug of war) Nazioarteko Sokatira Federazioak. Hala ere, oraindik ere Espainia izanarekin ibili behar dute euskal taldeek, ikurririk ezin dute erakutsi dominak jasotzean, eta Twifko ereserikia entzuten dute. Mutrikuko taldea izan zen Euskal Herria ordezkatu zuen lehena, eta nazioarteko sokatira euskal taldeetara hurbildu zuena.



Txapelketako sailkapenak

Nazioka

GIZONEZKOAK

560 kilo	600 kilo
1. Ingalaterra	1. Espainia
2. Espainia	2. Ingalaterra
3. Irlanda	3. Eskozia

EMAKUMEZKOAK

480 kilo	520 kilo
1. Japonia	1. Holanda
2. Holanda	2. Espainia
3. Espainia	3. Japonia

640 kilo

1. Eskozia
2. Irlanda
3. Espainia

680 kilo

1. Ingalaterra
2. Irlanda
3. Holanda

560 kilo gazteak

1. Irlanda
2. Irlanda
3. Suedia

Klubeka

GIZONEZKOAK

560 kilo	600 kilo
1. B. Gazte (EH)	1. St. Pats (Ir.)
2. Kilroe (Ing.)	2. Clomany (Ir.)
3. Areso (EH)	3. B. Gazte (EH)

EMAKUMEZKOAK

480 kilo	520 kilo
1. Cosno (Jap.)	1. Teerns (Hol.)
2. Sakana (EH)	2. Cosno (Jap.)
3. Kobelco (Jap.)	3. Dream (Jap.)

640 kilo

1. Clomany (Ir.)
2. Bremore (Ir.)
3. Raunds (Ing.)

680 kilo

1. Bremore A (Ir.)
2. Raunds (Ing.)
3. Bremore B (Ir.)

560 kilo gazteak

1. The Glen (Ir.)
2. Clomany (Ir.)
3. Clomhamon (Ir.)

Dominategia

	Urr.	Zil.	Bro.	Urr.	Zil.	Bro.	Guz.
Irlanda	1	2	1	4	3	2	13
Ingalaterra	2	1	-	-	2	1	6
Japonia	1	-	1	-	1	2	6
Espainia	1	2	2	-	-	-	5
Euskal Herria	-	-	-	1	1	2	4
Holanda	1	1	1	1	-	-	4
Eskozia	1	-	1	-	-	-	2
I. Irlanda	-	-	-	-	1	-	1
Suedia	-	-	1	-	-	-	1

lotzen. Urrea utkitzen izan dugu eta gurean bagina ekarri izan genuen», azpimarratu du.

Razkinen hango giroa ere nabaritu nahi izan du. «Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketa ezagututa uste genuen ezagutzen gurela sokatira mundua, baina benetan ohartu gara hura dela sokatira mundua. Han bizitzen da. Jende gazteak urte batzuk egin eta bukatu egiten du hemen, han ikusten da adineko jendea ia 60 urte dituztenak eta tiratzen dutenak».

Esfortzuak esfortzu, taldeak Euskal Herria «puntako mailan» dagoela uste du eta astero ordu asko entrenatzen duten arren, lortu dutena «garaipenik handiena» dela diote neskek.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Yanguas Mirandaren idazlan biren gainean

Nafarroako historia gaia duten idazkiak Yanguas Mirandak ondu zituen ezagunenak agitzen badira ere, Tuterakoak bestelako lan arinagoak ere tajutu zizkigun; hauetako bi Zuaznabar zenari erantzuna eta Juan Lanasen elaberria ditugu



JOSE MARIA ZUAZNABAR Fran-
cia Caverio Isasaga Mógica
eta Mauleón, berak sinatzen
zuen gisara, Donostian jaio zen
1764.eko abenduaren 18an eta
bertan zendu zen 1840.eko uz-
tailaren zazpian berean. Cana-
rietan izan ostean, Nafarroara
etorri zitzaigun Erregeordearen
zerbitzura. Eite historiko-juridi-
ko abondo lanen egilea, Historia-
ren zein Espainiarren erret Aka-
demietako kide izan zen
1821.etik eta 1831.etik, hurre-
nez hurren. Idatzi zituenen arte-
an, ugari ziren Canariar uharte-
ei buruzkoak, tartean Iruñeko
Paulino Longasenean 1820.ean
agertu *Los bascongados en las
Islas Canarias*, geroago ere,
1882.eko Euskara aldizkariaren
V. zenbakian berragertu zena -
huraxe ironia!-. Nafarroa izkiria-
gai zituenak ere laga zizkigun,
eta hauen artean, guri bereziki
interesatzen zaigun *Ensayo his-
tórico crítico de la legislación de
Navarra* aipatu beharra dago.
Zuaznabar Madrileko agintari-
gehlen gustatzen zitzaizaien aurre-
gia jartzen saiatu izan zen betie-
re, administrazioan oraino gora-
go egitearren, kosta ahala kosta,
zeren truke ere; hortaz,
1821.eko lehenbiziko edizioan
konstituziozaleen balakurako
esandakoak geroagoko gobernu
absolutista berriaren laketa garri
ez ziratekelakoan, bigarren edi-
zioa osatu zuen 1827.ean. Irizpi-
de finko eza huraxe izan zen
Yanguas holakatu eta ihardeste-
ra eroan zuena. Horrez gain, bi
edizioetan Madrilen zeudenen
atsegingarritako Foruek nafarrei
onartzen zizkieten eskubideen
aurka mintzo zen Zuaznabar,
horretarako egitik nahikoa
urrundurik zeudena argumen-
tu historikotzat aurkezteko ino-
lako enbarazurik izan gabe.

Yanguasek 1833.eko abuz-
tuan erantzun zion Zuaznabarri
*La contrajerigonza o refutación
jocosidad del ensayo histórico-crí-
tico sobre la legislación de Nava-
rra* idazkiaren bitartez; Elizondo

lizentziatuaren arimaren apode-
ratuaren izenean, Iruñean pla-
zaratu zen, nahiz azalean Panza-
colan egin dioen arren. Bai
Zuaznabarren lana eta bai Yan-
guasena, biak Principe de Viana
erakundeak berrargitaratu zi-
tuen 1966.ean. Ez zen liburu fi-
luse Yanguasek eskeini ziguna,
berrehundik gorako orrialde ko-
purua baitzuen. Zuaznabarri
hainbat oker gramatikak laban-
du zitzaizkion testuan, nire begi-
koz euskararen eraginez litezke-
enak, Yanguasek erasotzeko ai-
tzaki aparta izan zituenak, esate
baterako, Zuaznabarrek idatzi
«Todo es tan así...», eta Yangua-
sek erantzun zuenean: «*Tan,
tan..., tan-to baile con la gaita
gallega, tan-to baile que me dio
calentura; tan-to baile con la
moza del cura, tan-to baile que
me dio calentura.*»


Zuaznabar, espero zitekeenez,
ez zen erantzun gabe geratu, eta
Mis ociosos paperean Yanguasi ai-
tziko azkon ozenak jaurtiki zi-
tuen: «*escribano falsario, masón
con título formal que tuvo que
escaparse de Navarra, y aquí en
Bayona plantó una tienda de re-
lojería, que en San Sebastián se
metió a chalán o negociante de
toros...*».

Yanguasen lanik literarioena
*Vida del capitán D. Juan Lanás
escrita por él mismo* izenburuko
elaberria dugu, Donostiako Ig-
nazio Ramon Barojarenean
1845.ean karrikaratu zena. Ino-
zentziari eskeinia, bere burua
editore soila gisa aurkeztu zigun
sarreran, eskuizkribua Parisen
hamar liberen truke

erosi zuela-
rik. Gauza
ezaguna da
frantsesteal-
dian Yanguas
denbora batez
preso eraman
zuela Espoz Mi-
na gerrilariak be-
rekin; bada, or-
duan ikusi zitue-
nak abiapuntu har-

turik, Mendigorriako Andres
Eguagirreren aginduetara zego-
en Juan Lanás soldadu aragoia-
rraren pasadizoak eskeini zizki-
gun artxibazainak, eta bereziki,
Lanás soldaduak lizentzia hartu
ostean eguzkira egin zuen bi-
daiaren berriak. Liburuaren bu-
kaera aldera, Plutonen mezula-
ria den atso baten ingumak
Juan Lanás espetxeraturik du-
ten sudurmotzengandik aska-
tzen du zerrailabegitik atereaz,
horretarako behar den arao ma-
gikoa esanez, Yanguasek euska-
raz eman ziguna: «*Infernuetaco
Jaun ta jabe eta Aguintari nugu-
sia, ceure serbitzari leialen estal-
pelari eta laguntzalle aberats
errutsua, ez dezazula arren ceu-
regandic laga estura larriko, lan-
ce onetan, zure biotzuquitze ja-
quintzuac cintzoqui entzun eta
maizaro gorde izan dituelaco
perseguitua arkitzen dan gui-
zagaisho errucarri ilcor bat, eta
eguizu aldezun guztia zure mo-
rroi esanguille humil Adarreco-
lepoac aguertu aguertu dezan
indar sendo iñore azpiratu ezin
leiqueana, ceñarequin amparatu
izan dezun beti Izarretaco biz-
tanleen bidebaguequeriaz burla-
tzen (etsai uritarmentarenac) pe-
leatu ciñan beraren alde alper
alperic, bañan guztiz ondra an-
dian, gogolibredunen machina-
daco egun izugarri artan, Erre-
suma mempecoen Aguintza biu-
rri urgullusoaren contra.*» Eus-
kalaritzan sekularenean ez da
testu hau aipatu, seguroenik
ere, ezezaguna izan delako. Ez

dago Yanguasek berak
sortua izan zela esate-
rik, euskaraz zekiela
ziurra ez baita,
nahiz Iruñean,
Baionan eta Do-
nostian eginiko
egonaldiak zein
Espoz Minare-
kin botatako
denboraldiak
zertxobait jakiteko
aukera eman liezaioketela pen-
tsa daitekeen.



etorri aha le an

Patziku Perurena



Genealogiaren moral ondarrak

BEHIN BAZEN GALEUZ-
ka izeneko zirkoa
Iruñen, eta salara
sartu nintzenerako
filosofo bati tripak ateratzen ari
zen Eduardo. Julián Mariasi us-
te dut; nere gogoak, bere kapri-
txoak izaki, izen nobleak baino
aisago jasotzen baititu burutazio
nobleak. Ordukoan ere halaxe.

«Etorkiaren kateak defendi-
tzen aspaldidanik kaskagor se-
gitzen du jendeak, baina horrek
ez du inolako inportantzia bere-
zirik Mariasentzeko», edo gisako
zerbait esan zuen Eduardok, se-
guru aski ere, batere Marias zale
izan gabe, bere burutazioa na-
barmendu nahian edo. Nik ben-
pe, burutazio huraxe dut, egun
hartako oropen bakar.

Geroztik urte batzuk irago di-
ra, eta hona non Peter Sloterdijk
filosofoaren *Munduaren Arro-
tzaldia* liburua espainolera ekar-
tzean, berri ere burutaziorik
ederrenetakoa horixe berbera
iruditu zaion Eduardori. Ez di-
rudi beraz, Mariasen irazitekoa
zuenik. Neremodu euskaratuko
dizut:

«Liburu honek ematen digun
buruzpiderik argien eta liluraga-
rrirenetakoa, printzipio genea-
logikoaren azkenaz ari dena duke-
zu. Iraultza neolitikoaz honata,
ez da tamaina honetako gertaka-
ririk eman. Neolitikoan, gizonak
bere burua ingurumari batera
hesitu zuenez geroztik, inguru-
mari horrekin batera bere burua
ere sakratu eta madarikatu
bihurtu zuen. Eta gizaera, au-
toktonoago bihurtzen etorri den
neurrian, logika horrek estutu
egin du arraso bere gogo. Atze-
renerako genealogia, ahaideko-
tasuna eta jabetasuna bezalako
kontzeptuekiko grinak itoxe
duen arte».

Eta grina antzu honek, biz-
pahiru mila urtez eduki du gizo-
na bere sorburuaz eta etorkizu-
naz buruhausten. «Nondik na-
tor? Nora noa?» galdera komer-
tzial tipikoak daude printzipio
engainagarri horren azpian, bi-
denabar esan, munduko mono-
teismo guzien bazka izan dire-
nak. Halabaina, «Ez gatzon inon-

dik. Ez goaz inora. Lasai!» esan
nahi duela dirudi, berri atzera,
gizonak. Baina, ez du nork ten-
tuz aditurik, ez nork tentuz
erantzunik.

Ez da atsegin eta erreza iza-
nen, baina, printzipio genealogi-
koaren azkena, hortxe dugu ber-
tan, beste bizpahiru gizaldiren
ondotik. Jadanik kanpoko da
bertakoen gidari gutiziatuena,
batipat munduko herririk aurre-
ratuenotan.

Baina ez da orain sortutako
kontua ere, ez eta mende hone-
kin edo ilustrazioarekin ere; be-
har bada, erromatarrek berek
egin zuten pentsamentu genea-
logikoa atzean utziz kultura au-
rrerakoi baterako lehen ahailegin
serioa.

«Orain dela hogeitalau men-
de, Timeok jakinaren gainean ja-
rri zituenetik greziarrak, esanez
beren burua ederresteari utzita
Erromari inportantzia ematen
ikasteko, hasia zen printzipio
genealogikoaren azkena. Mende
bete gerozago, Polibio ontzat
erraz hartua izan zen erromatar
burutsuen artean, eta lehen his-
torialari moderno bihurtu zen,
printzipio genealogikoa arkaiko-
tzat jo eta, greziarrena baino gi-
zaera lasagoko kultura heleni-
koan murgiltzean».

Jakina, genealogiaren kateari
buruzko amodio itsua ezin itzali-
ko zen hau edo beste munduko
potentzi izateagatik bakarrik.
Mila modutan mozorrotzeko
erraztasun haundia erakutsiz
gorde baitu printzipio genealogi-
koak bere eragina gizakion gogo-
an. Zerk sortzen ditu, esate bate-
ko, «Langile Batasuna», «Euskal
Jatorrismoa», «Intxa Futboleroa»
eta beste mila mixer? printzipio
genealogiko gorde eta fanatiko
horren hesiak ez bada?

Jendea masan hesitua ikus-
ten dudak bakoitzean, edozein
aitzaki duela ere, Eduardoren
Iruñeko burutazio hartaz oroit-
zen naiz. Bai, badirudi printzi-
pio genealogikoak, NI-az estutu
ahalean MUNDUaz arrotzu egin
gaituela, atzenerako geure bu-
ruaz eta munduaz asper gaizto
egiteraino antzutu eta koldartuz.

Ziria

• Motxorrosolo •

Kristobal Paradisuan

UDALTZAINGOTIK HURBIL, DUELA HOGEI URTEKO IRUÑEAN, UHI-
nak aztoratu zituen. Ondoren sortu ziren Eguzki,
CRDI, Zarata eta enparauak, «Tio Willy» zenaren trebezia
anitzen eredu. Paraiso izeneko irrati horren partaide izanda-
ko irratiaren aferra aztertzen ari den batzordeko burua. Liber-
tateaz ezer jakin beharko luke.

Maite Lopez

«La voz de la Merindad» aldizkariko zuzendaria

«Gertuko informazioa berreskuratu nahi dugu»

Kalean da *La voz de la Merindad*, Nafarroako Erdialdeko hilabetekari berria. Maite Lopez aldizkariko zuzendariak dioenez, hurbilen duten informazioa berreskuratu egin nahi dute eta, bide batez, eskualdean dagoen kazetaritza tradizioa bildu.



MIKEL SAIZ

BIGARREN ALERAKO AZKEN prestaketak egiten zebilela harrapatu genuen Maite, urduri eta lanez gainezka. Nolanahi ere, proiektu berriaren ilusioak huskeria bihurtzen du azken hilabeteotako egina hal handia.

■ Nola sortu da *La voz de la Merindad* aldizkaria?

Merindad Kultur Elkarte kulturalak eskualdeko argitalpen bat berreskuratzea planteatu zuen joan den udan, bere garaian *Merindad* izan zena. Hamahiru urtetan atera zen kalera. Jendeak kolaboratzeko eta lan egiteko gogo zuela ikusirik, urte bukeran proiektua gorpuzten hasi ginen, aldizkaria berriro argitaratzeko. Joan den urtarrilean atera da kalera lehen alea.

■ Merindad Kultur Elkartea aipatu duzu. Zer ikusteko du aldizkariarekin?

Merindad Kultur Elkartea 1987an sortu zen, *Merindad* argitaratzetik gelditu zenean. Elkartearen helburua argitalpen bat kaleratzea zen: *Merindad*, hain zuzen. Bi urtez egon zen kalean, baina arazo ekonomikoak izan zituen, eta desagertu egin zen. Hamar urteotan, ordea, abutzuko festetan ateratzen den jailetako ale berezia mantendu du.

■ Beraz, pisu handiko aurrekari bat du atzean?

Bai. Gure borondatea da eskualdean eta Tafallan egon den kazetaritza tradizioa biltzea. Argitalpenaren izena bera, *La voz de la Merindad*, 1929tik 1937ra argitaratu zen aldizkari baten izena da. Bere garaian oso argitalpen sonatua zen, eta kolaboratzaile asko izan zituen. Ondoren, 1973tik 1987ra, *Merindad* ka-

leratu zen. Uste genuen Tafallan bazegoela tokia horrelako argitalpen bat kaleratzeko; inguruan dauden historialari, idazle eta kolaboratzaile sortaren laguntzarekin, betiere. Gainera, hemengo komunikabideak izan dira gero idazten jarraitu duten pertsonen trebakuntzarako gunea: Rosa Barasoain, Marina Oiz eta Jose Mari Esparza *Merindad* aldizkarian idazten hasi ziren, eta gero beren bidea egin dute idazle eta kazetari moduan.

■ Etapa berri honetan aintzat hartu duzue kolaboratzaileen esperientzia?

Bai. Lehen alea kaleratzeko, eta ondoren etorriko direnak egiteko ere, aintzat hartu ditugu. Berreskuratu egin nahi ditugu, eta kazetari belaunaldi berrien idaztokia ere izatea nahi genuke argitalpena.

■ Zeri emanen dio garrantzia aldizkariak?

Gure herrietako historia berreskuratzea da erronketako bat. Eskualdeko beste aldizkarietatik ezberdintzen duen puntua da, nolabait. Zenbaki guztietan tratamendu zabala emanen diegu historiako galei, eta jadanik baditugu kolaboratzaile batzuk. Gainera, ez da historia idatzia bakarrik izanen; historia grafikoak ere izanen du bere tokia: ale bakoitzean argazki zahar bat eskainiko dugu. Batetik, aktualitateari begira egonen da aldizkaria, eta hilerio pil-pilean dauden gaiak jorratuko ditu, baina historia ere izanen du txoko garrantzitsua.

■ Zergatik bertako historia berreskuratzeko behar hori?

Tokian tokiko komunika-

«Eskualdean distantziak txikiak diren arren, alde psikologikoak oso handiak dira. Beraz, modu batean edo bestean, alde horiek laburtu nahi ditugu eta eskualdea egituratu, gure artean hobeki ezagutzeko»

zioa garrantzitsua da, gero eta komunikabide gehiago dauden garai batean. Informazio kantitate izugarriak lortzeko gero eta aukera gehiago ditugu, informazioaren globalizazioa gero eta handiago da Interneten bidez, baina *La voz de la Merindad*-en apustu egiten dugu gertuen daukagun informazioa berreskuratzeko. Eskualdean distantziak txikiak diren arren, alde psikologikoak oso handiak dira. Beraz, modu batean edo bestean, alde horiek laburtu nahi ditugu eta eskualdea egituratu, gure artean hobeki ezagutzeko.

■ Nafarroa linguistikoki aldatzen ari da, eta zuek eremu mistoan zarete. Zein tratamendu izanen du euskarak?

Alderdi honetan euskararen berreskurapena gero eta nabariagoa da. Eskolako matrikulazio datuetan argi eta garbi ikusten da. Erriberan eta Erdialdean haur gehienak A erduan matrikulatuak daude, eta euskara berreskuratzen ari da. Aldizkaria horretarako beste elementu bat izatea nahi dugu, eta euskara erabiliko dugu. Guztiengana iritsi nahi badugu, gehiena gaztelaniaz izanen da, baina, betiere, aintzat harturik euskararekin zerikusia duten gai guztiak, eta gutxinaka euskara sartzen hasiko gara.

■ Zein baliabide dituzue aldizkaria argitaratzeko?

Aldizkarian bi langile gaude. Maite Hernandez publizitateaz eta banaketaz ardura-

soslaia

Maite Lopez tafallarra iaioa da kazetaritza lanetan. Egin egunkariako Iruñeko delegazioan urte mordoak aritua da, eta lan berria gogoz hartu du. «Erakargarria iruditu zait, gauza askoz gehiago egin behar dira, erredakzio batean oso zehaztuak daude lanak, baina hemen prozesu osoa ikusten duzu. Esperientzia aberasgarria iruditzen zait», dio.

Nolanahi ere, Maite Lopezek ez du *La Voz de la Merindad* aldizkariko lana bakarrik izanen. Altafaylla Kultur Taldeko koordinazioaz ere arduratuko da. Liburu argitaletxe izateaz gain, eskualdeko ondarearen inguruko gomendioak eta lanak ere bultzatuko ditu taldeak.

Egunotan lanez gainezka badabil ere, asteburuak sosegu hartzeko ditu Maitek. Mendizale amorratua, maiz joaten da Pirinioetara. Liburu on baten arrimoan-egoteari edo pelikula on bat ikusteari ere ez dio muzin egiten.

tzen da, eta ni koordinatzaile lanaz. Kolaboratzaile sare handia dugu. Aurrekontuaz ezin dut oraindik hitz egin. Publizitatearen eta salmentaren bidez finantzatu nahi dugu. Kanpaina bat egiten ari gara, jendea harpidedun egin dadin; inguruan 1.000 harpide lortu nahi ditugu: horrek aukera emanen liguke errentagarria izateko. Aldizkari gehienak doan dira, baina kobratzeko erabakia hartu dugu, iruditzen zaigulako kazetariaren lana eta aldizkaria egiten dugunon lana duintzeko modu bat dela. 300 pezeta kostako da, eta, harpidetza eginez gero, 3.500 pezeta urtean.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko martxoaren 5a

ZALDIEROA komikizopa



Nafar Kronika

Pello Goñi

Gidoiak

Batzuek zigilu edo ixapon zaharren bildumak egiten dituzte, beste batzuek mundu zabaleko garagardo late-nak, eta badira maitaleak biltzen dituztela diotenak ere. Auskalo. Nik, ordea, esaldien bildumak egiten ditut. Ez ditut, halere, nolanahiko esaldiak biltzen. Konparazio batera, badut bilduma bat Ipar Amerikako pelikuletan eta telefilmekin behin eta berriz errepikatzen diren esaldi topiko horiekin egina: hau herri libre da, Ipar Amerikako hiritarra naiz, zergak ordaintzen ditut, gureak ezin du horrela jarraitu, ene psikiatrari kontsultatuko diot, irakuriezazkiozu haren esku-bideak, atsegina izan besterik ez nuen nahi, akabatuko haut, ez da zuk pentsatzen duzuna, ez zaitut sekulan abandoñatuko, betikoz maite izanzen zaitut, ezerk ez gaitu bananduko... Esaldi hauek bildu, apuntatu eta liburuxka batean gorde egiten ditut. Eta gero, inoizka, aipatu esaldiak oinarri, gidoiak idazten saiatzen naiz, baina normalean oso istorio txarrak ateratzen zaizkit. Azken aldi honetan, ordea, amerikar mundu ergel horretaz nekatuta edo, etxera bihurtu dut burua, hemengo nagusiek esaten dituztenak biltzeari ekiteko. (-)Tasuna eta

(-)keria, -tasuna eta -keria besterik ez dut jaso berriki hasitako hitz zerrenda horretan, tarteka gu eta gutarrak eta antzekoak ere agertzen direlarik. Material aspergarri horrekin gidoi bat idazten saiatu eta ez zait deus atera, burua hutsik gelditu naiz. Hauxe da paisaje foralak tenore honetan eragiten didana, non-nahitik begiratuta ere. Hortaz, amerikar pelikula homogeneo horietara itzultzea erabaki dut, haiek bederen gidoi txarrak asmatzeko aukera ematen baitidate. Eta nik gidoi egile izan nahi dut. Txikitatikan.

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Jazz Jaialdia izanen da gaur eta bihar Gaiarre antzokian. Gaur Calle Caliente eta All stars jazz latin band ariko dira, eta, bihar, La Vella Dixieland eta Aizaga Ganbera Abesbatza. Bi emanaldiak 20:00etan izanen dira. Sarre-rak 1.000 pezeta balio du.
- **Elizondo:** El Konde Rata taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30etan, Casino tabernan.
- **Iruñea:** El cumpio asesino taldeak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean 21:30etan.
- **Gares:** Soziedad Alkoholika taldeak kontzertua emanen du bihar 23:00etan Fundamen-tal aretoan.

ERAKUSKETAK

- **Atarrabia:** Jose Manuel Casti-lasek Guaran herriaren in-guruan egindako argazki era-kusketa ikus daiteke Jubila-tuen elkartearen martxoaren 14a arte.
- **Tafalla:** Hilaren 14a arte En-cuentros 98 margo erakusketa dago zabalik Kultur Etxean.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri Elkarteak antolatuta, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur Corina Corina pelikula pantai-laratuko da 20:00etan. Aurre-tik Bernar film laburra eskai-niko da.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Zarrapastra taldeak Nuestros deseos lana taulara-tuko du gaur, 20:00etan, Iru-ñeko Kutxako hitzaldi aretoan (Armada Etorbidea, 2).
- **Iruñea:** Korrika Kulturalaren barruan Txirri, Mirri eta Txiri-biton pailazoak Salestarren aretoan ariko dira bihar 17:00etan eta 18:30etan.

► **Iruñea:** Rapsoda de poesias so-bre la mujer en el mundo lana taularatuko du datorren os-tegunean, 19:30etan, Erral-dioen Txokoan.

BERTSOLARIAK

► **Betelu:** Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalaurrea ospatuko da etzi herriko pilo-talekuan 16:30etan. Bertso kantari ariko dira: Estitxu Arozena, Oskar Estanga, Es-

titxu Fernandez, Ekintza Landa, Juan Mari Lopez eta Iñigo Olaetxea.

BESTELAKOAK

► **Etxauri:** Denak Bat elkarteak urtero egiten duen pilota txapelketarako deialdia zabaldu du. Bost kategoria daude eta izena emateko epea martxoaren 17an bukatzen da. Parte hartu nahi duenak ondoko telefonora deitu behar du:

948-329077 edo 948-329377 faxera bidal dezake izena, helbidea eta telefonoa.

► **Iruñea:** Belen Eguzkiza eta Poto Gorrotxategik La luz del invierno. Travesia de los Ecrins. Volvemos a Chile diapositiva emanaldia eskainiko dute gaur, 20:00etan Nafarroako Kirol Elkartearen Bestalde, mendi eskolak Ganuza, Arnaba eta Alda mendietan barna zeharkal-dia egiten du.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—As sardiñas volverían se os gobiernos quixesen.

Gobernuek nahi ukanen balute, sardinak bihutuko lirake